



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko abenduaren 12an

109 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua, abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Jabeldura, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Nafarroako Gobernuak Estatuko gobernuak tiro poligonoa nazio-defentsarako intereseko eremu deklaratzearen aurrean zer egingen duen jakiteko (3. or.).

—Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abere hilak biltzeko plan bat aurkeztu eta konponbideak bila ditzan (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak egina, Osasun Departamentuan botikak eman izanari buruzkoa (7. or.).

—Galdera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina, kontsumitzaileen elkarteei buruzko arauari buruzkoa (8. or.).

—Galdera, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak egina, arrantza esparruak kudeatzen dituzten arrantzale elkarteen kontuen fiskalizazio eta kontrolari buruzkoa (8. or.).

—Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, langile minusbaliatuak kontratatze-ari buruzkoa (9. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko abenduaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Abereen osasunari buruzko Foru Legearen eztabaidan agerian geratu zen Biltzarreko gehien-goia era guztietako animaliak –hausnarkariak izan ala ez– elikatzekeo pentsuak egiteko animalia hilen erabilera debekatzearen alde dagoela.

Iritzi publikoa asaldatuta dago Estatuko erkidego batean, Galizian, “behien entzefalopatia espongi-formea” (BEE) izeneko gaitza agertu delako.

Presakoa da behar diren aurreneurriak eta segurtasun neurri guztiak jartzea, maila guztietan, gaixotasun hori zabal ez dadin, eta azpimarratzekoa da hura deuseztatu nahi badugu, gaixotasuna agertzeko arrazoiei egin behar diegula aurre. Horretarako, kutsadura-arrisku berri guztiak deuseztatu behar dira, eta animaliez eginiko animalientzako (eta konpainia animalientzako) irinak debekatu behar dira, bai eta hirugarren herrialde-etara esporta daitezen debekatu ere.

Beharrezkoa da hondar arriskutsuak kentzea elikagaien kateatik Europako Batasuneko herrialde guztietan.

Premiazkoa da BEEri buruzko ikerketak areagotzea, inolako pistarik bazter utzi gabe, eta kutsadurarik ba ote dagoen ziurtatuko duen test fidagarri bat prestatu beharra dago.

Pentsuen industriak gardentasun gehiagoz jokatu behar du; horretarako, osagaiei eta produktuaren jatorriari buruzko xehetasunak emanen dituzten etiketen beharra gero eta nabarmenagoa da.

1. artikulua

26. artikuluari 2. idatz-zati bat gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

“2. Inoiz ere ezin izanen da animalien gorpurik erabili edozein motatako azpiproduktu prestatzeko nahiz beste animalia batzuei jaten emateko; guztiz debekatuta dago haiek erabili eta aprobetxatzea.”

2. artikulua

56. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzea proposatzen dugu. Hona testu berria:

“7. Hauei probetxua ateratzeko edozein triki-mailu:

– Abere hiletatik lortutako haragia edo produktuak.

– Nahitaez sakrifikatu beharreko abereetatik lortutako kanal edo errai dekomisatuak.”

3. artikulua

56. artikuluko 8. idatz-zatia aldatzea proposatzen dugu. Hona testu berria:

“8. Abereen gorpuak, erraiak, hondakinak edo dekomisuak tratatu eta aprobetxatzeko jarduerak.”

4. artikulua

Laugarren xedapen gehigarri bat eranstea planteatzen dugu. Hona haren testua:

“Laugarrena. Animalien pentsuak kontrolatu eta suntsitzea.

1. Lege hau indarrean sartu eta hilabeteko epean, osagaien artean beste animalia batzuen

elementuak dauzkaten animalientzako pentsu konposatu guztiak suntsitu beharko dira.

2. Nekazaritza Departamentuak, lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, erregelamendu bidez garatuko du beste animalia batzuk elikatzeke pentsuen fabrikaziorako animaliarik erabil ez dadin kontrolatzeko prozedura.

Azken xedapenak

Lehena. Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau egoki garatu eta betetzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak Estatuko gobernuak tiro poligonoa nazio-defentsarako intereseko eremu deklaratzearen aurrean zer eginen duen jakiteko

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuak Estatuko gobernuak tiro poligonoa nazio-defentsarako intereseko eremu deklaratzearen aurrean zer eginen duen jakiteko jabeldura aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abenduaren 4an egindako bilkuran, jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko abenduaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

JABELDURAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari.

Aurrekariak

Nafarroako gizarteak askotan agertu du Bardeako tiro poligonoaren eta bertan egiten diren praktika militarren aurkako jarrera. Nafarroako udalugarik, Bardeako Komunitateak eta Nafarroako Parlamentuak berak askotan eta era ezberdinetan agertu izan dute Defentsa Ministerioarekin egun dagoen kontratua berritzearen aurkako jarrera.

2001eko uztailean bukatzen da aipatu kontratua. Izan ere, eta data horri begira, Nafarroako Parlamentuak azken hilabete hauetan erabaki batzuk hartu ditu kontratua bukatu eta biharamunetik aurrerako egoera zuzentzeko.

Horietako erabaki bat joan den ekainean hartu zuen Nafarroako Parlamentuak, eta UPNk baizik ez zuen aurkako botoa eman. Hartan, Nafarroako

Gobernua premiatzen zen Nafarroako Gobernuak, Parlamentuko taldeek eta Bardeako Batzarrak osaturiko Batzorde Misto bat eratzeko, hain zuzen ere Bardea, kontratua bukatu eta gero, tiro poligono izateari uztea Estatuarekin negoziatzeko. Behin betiko onespeneraren zain dagoen beste ekimen bat da Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legearen aldaketa. Aldaketa horri esker, babes figura horren barnean sartuko da tiro poligonoaren erabilera bereziko eremua, kontratua bukatzen denetik aurrera, hau da, 2001eko ekainaren 10etik aurrera.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako gizartearen borondatea errespetatu gabe, joan den astean jakin dugu Estatuko Gobernuak dekretu bidez deklaratu duela lurralde hori "nazioaren defentsarako interesekoa" dela.

Hau da, berriz ere interes nazionala ezartzen zaie nafarrei, gehiengoaren borondatea urratuz. Hori ustekabe handia da nafarren desioetarako: beharrezkoak dira agintarien, gainerako politikarien eta Nafarroako gizarte osoaren irmotasuna eta balentria beren borondatea errespetarazteko.

Proposamena

Arrazoi horiek direla eta, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari Osoko Bilkuran ondoko gaiak azter ditzan:

- zer eginen duen Nafarroako Gobernuak Estatuko gobernuak tiro poligonoa nazio-defentsarako intereseko eremu deklaratzearen aurrean.

- zein irizpide erabili dituen Nafarroako Gobernuak Estatuarekin negoziatzeko Batzorde Misto eratzeko garaian Parlamentuko zenbait talde –hain zuzen ere, tiro-poligonoaren aurkako borrokan aktiboak direnak– kanpo uzteko.

• zein mekanismo erabili behar dituen nafar gehienen borondatea errespetatu eta Bardeako tiro poligonoa eraitsi ahal izan dadin.

Iruñean, 2000ko abenduaren 4an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da abere hilak biltzeko plan bat aurkeztu eta konponbideak bila ditzan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da abere hilak biltzeko plan bat aurkeztu eta konponbideak bila ditzan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abenduaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu du Nekazaritza Batzordean eztabaida dadin.

Frantziatik Espainiara behi-azienda sartzeko debekuak alarma piztu du kontsumitzaile eta erabiltzaileengan. Nafarroako iritzi publikoa oso sentibilizaturik dago gai honekin, Foru Komunitatean “scrapie” gaitzaren brote bat deklaratu ondoren nafar jatorriko 2000 ardi hil behar izan zirelako, eta, halaber, Galizian “behi eroen gaitza” deiturikoak jotako behi-azientariek aurkitu delako berriki.

Autonomia erkidegoetako agintariak aurreikusitako Espainiako azientetan “entzefalopatia espongi-formeko” kasuak ugaltu egiten direla urtariletik aurrera, egun egiten direnez bestelako analisi batzuk, sakonagoak, Frantzian aplikatu diren antzekoak, egiten hasten direnean.

Egoera honek eskrupulu handiz jokatzeko eskatzen du, bai eta aurreneurriak hartzea ere, osasun publikoko gai garrantzitsu honetan gaitz handiagorik gerta ez dadin. Izan ere, 2000ko urriaren 2tik aurrera, animalien hondakinak, “arrisku-material berariazkoak (AMB)” izenez ezagutzen direnak, hain zuzen ere nerbio-ehunak, nahitaez deuseztatu behar dira Europako Batasuneko herrialdeetako hiltegi, despezierako areto eta prozesatzeko planta guztietan.

Europako Batasunaren erabakiak arrisku-material berariazkoak biltegitratzeko bete beharreko baldintzak ezartzen ditu, bai eta haiek sailkatu, tratamendu-plantetara garraiatu eta lurperatzeko –kasua bada– baldintzak ere.

Teknikari askok aitortu izan du Creutzfeld Jakobena gaixotasuna sorrarazten duen agenteak infektatzeko duen ahalmena nerbio ehundetan (muinak eta orno-muina) datzala, batez ere. Ehun horiek kenduz gero, arriskuaren % 95 kenduko da, eta amigdalak eta begiak ere kentzen badira, infektatzeko aukeren % 100 desagertuko da. Hori dela eta, hiltegi guztiek arrisku-materialak bereizi eta tratamendu egoki batez deuseztatuzko betebeharra dute.

Europako Batasunaren arauak hamabi hilabete baino gehiagoko behi-azienda guztien burezurren, amigdalak, orno-muina eta ileona deuseztatzea agintzen du. Ardi eta ahuntz guztiei bareak kenduko zaizkie; hamabi hilabete baino gehiagoko ardiei burezurra, amigdalak eta orno-muina kenduko zaizkie.

Europako Batasuneko legediak agintzen du arrisku-material berariazko (AMB) guztiak tintura urdinez marraztea eta guztiz suntsitzea.

Egoera hau dela eta, aukera bat da Nafarroan diren 24 hiltegiek beren instalazioak homologatzea eta tratamendu-zentro bat sortzea, animalien hondakin haiek deuseztatu ahal izateko. Beste autonomia erkidego batzuek (Euskadi, Galizia, Gaztela-Leon eta Katalunia), plan batzuk egin

dituzte hiltegiako hondakin guztiak hozkailu-kamioietan jaso eta deuseztatzea eramateko.

Nafarroako Gobernuak Nafarroan bazter utzi du tratamendu-planta bat sortzeko aurkeztu den ekimen bat. Planta horrek arrisku-material berariazkoen hondakinak tratatuko zituen, ehun horiek beste erkidego batzuetara bidali beharrik gabe. Horrek bidea emanen zukeen, gainera, gaiari irtenbide hobea emateko eta hondakinak deuseztatzekeo kostuak gutxitzeko, haiek kanpora bidali beharrik izan gabe.

Nafarroan tratamendu planta bat ez jartzeak kostu oso handiak ekarriko dizkio sektoreari: hondakinak leku berezietan bildu eta ontzi homologatuetan garraiatu beharko dira beste autonomia erkidego bateko tratamendu-zentroren batera (agi denez, Tarragonara edo Leonera).

Tratamendu zentro bat egiteko ekimen horri ezezkoa eman zion Nafarroako Gobernuak (Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua), eta ezezkoa eman zion, halaber, Foru Komunitateko hiltegi bateko egungo tratamendu-planta homologatzeko alternatibari, gutxienez ere arrisku-material berariazkoak deuseztatzekeo modua egon zedin aurkeztua.

Bestalde, gaur arte behinik behin, Nafarroan ez dago hildako animaliak segurtasun eta higiene

baldintzetan suntsitzeko modurik, eta karea erabiliz lurperatzen dira edo animalien gorputegietara eta saien bazka-tokietara eramaten dira, betiere higiene baldintza gutxirekin edo batere gabe, eta Administrazioak hori guztia kontrolatu gabe. Egoera hori dela eta, plan bat egin dadin eskatzen dugu, han-hemengo animalia hilak osasun eta higiene baldintzetan jaso eta propio sorturiko planta batean tratatu daitezen.

Hori guztia dela eta, hona gure erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan irtenbideak bila ditzan arrisku-material berariazkoak (AMB) segurtasun eta errentagarritasun ekonomikoko baldintzetan suntsitzeko, aldez aurretik Nafarroako Foru Komunitateko hiltegiekin akordio batera heldu ondoren.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hildako animaliak jaso, kamioi bereziki prestatuetan garraiatu eta leku egokietan suntsitzeari buruzko plan bat aurkez dezan.

Iruñean, 2000ko azaroaren 28an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

F saila:
GALDERAK

Osasun Departamentuan botikak eman izanari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abenduaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak Osasun Departamentuan botikak eman izanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abenduaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten.

2000n zehar:

1. Zein entitateri eskatu dio Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak sendagaiak saltzeko? Eskariak egin ziren egunak eta gainerako xehetasunak nahi ditugu

2. Zein prozedura administratibori jarraitu dio Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak sendagaiak erosteko?

3. Zein entitateri erosi dizkio sendagaiak Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak? Erosketak egin ziren egunak eta gainerako xehetasunak nahi ditugu.

4. Zein kontusailaren kargura ordaindu dira erositako sendagaiak?

5. Azken bi urte hauetan, erosi al zaio farmakorik NAFARCOri? Erosketarik egin al da? Eskari edo/eta erosketak egin diren egunak eta xehetasunak nahi ditugu.

Iruñean, 2000ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Kontsumitzaileen elkarteei buruzko araei buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Kontsumitzaileen elkarteei buruzko araei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abenduaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

– Zein arauk, foru nahiz Estatu mailakok, du indarra kontsumitzaileen elkarteei buruz?

– Zein dira Nafarroako Gobernuaren diru laguntzak eskuratzeko arauak? zein baldintza eskatzen zaizkie? Zein deialdi egin dira?

– Zein dira Nafarroan erregistraturiko kontsumitzaileen elkarteak? Zenbat bazkide ditu bakoitzak?

– Gizarteak parte hartzeko zein organotan daude elkarte horiek Foru Administrazioaren barruan? Zenbat kobratzen dute hor egoteagatik?

Iruñean, 2000ko azaroaren 27an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Arrantza esparruak kudeatzen dituzten arrantzale elkarten kontuen fiskalizazio eta kontrolari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abenduaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak arrantza esparruak kudeatzen dituzten arrantzale elkarten kontuen fiskalizazio eta kontrolari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abenduaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten.

Ingurugiro Departamentuak Nafarroako ibaien arrantza kudeatzen duten arrantzaleen elkarten jardueren laburpenari buruzko informazioa eskuratu zion Parlamentuko Talde honi. Informazio hori talde honek xeheki azterturik, argitu beharreko zalantza batzuk sortu zaizkigu. Hori dela eta, jakin ondokoa jakin nahi dugu:

1. Zein da zehazki Ingurugiro Departamentuak Nafarroako ibaietako arrantza-barrutiak kudeatzen dituzten arrantzale-elkarten kontuen gaineko kontrolean eta fiskalizazioan duen erantzukizuna?

2. Uste al du Ingurugiro Departamentuak zuzena dela elkarte batzuek aurkeztutako kontabilitatea, zeinetan ez baitira gastuak fakturen bitartez egiaztatzen?

3. Uste al du Ingurugiro Departamentuak aski dela barrutirako kontraturiko zaindari bat dagoelako idatzizko adierazpen hutsa haren kontratua edo nominaren egiaztagiririk aurkezten ez bada?

4. Ontzat ematen al du Ingurugiro Departamentuak emandako txartelen kopuruaren aipa-

men hutsa, haien kopiarik edo egiaztagiririk aurkeztu gabe?

5. Onartzen al du Ingurugiro Departamentuak elkarteren batek urteren batean oroit-idazkirik ez aurkeztea? Egiatzatu ahal izan dugu zenbait sozietatek urteren batean ez dutela oroit-idazkirik egin.

6. Eskatu al dio Ingurugiro Departamentuak sozietateren bati barrutiaren kudeaketak sortzen dituen banku-mugimenduak justifikatu ditzan?

7. Gainerako agiriekin batera ez baitzen igorri, ba al du Ingurugiro Departamentuak Río Arga elkarteak 1997ko gastuen aitorenpenik?

8. Ba al du Ingurugiro Departamentuak Lizarrako elkarteak egoitza-gastuengatik aurkeztu duen 1.300.000 pezetako gastuaren egiaztagiririk?

9. Ba al du Ingurugiro Departamentuak Lizarrako elkarteak ibilgailu baten erosketarengatik

aurkeztu duen 3.000.000 pezetako gastuaren egiaztagiririk?

10. Ba al du Ingurugiro Departamentuak, egingako kilometroengatik Lizarrako elkarteak aurkeztu duen 1.000.000 pezetako gastuaren egiaztagiririk?

11. Ba al du Ingurugiro Departamentuak elkarrekin txapelketengatik eta bestelako ospakizunengatik aurkezturiko gastuaren egiaztagiririk?

12. Uste al du Ingurugiro Departamentuak zuzena dela barrutiari berari egozteko Lizarrako elkarteak egoitza, ibilgailu baten erosketan, egingako kilometroetan, txapelketetan eta bestelako ospakizunetan gastatutakoa?

13. Uste al du Ingurugiro Departamentuak zuzena dela barrutiari berari egozteko ibaiari inolako hobekuntzarik ekartzen ez dioten gastuak?

Iruñean, 2000ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Langile minusbaliatuak kontratatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abenduaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak langile minusbaliatuak kontratatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abenduaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten.

1997tik indarrean dago Espainian, oro har, 50 langile edo gehiago dituzten enpresetan lanpostuen % 2 minusbaliatuentzat gordetzeko betebeharra.

Betebehar hori dela eta, ondokoa jakin nahi dugu:

1. Zenbat enpresa ikuskatu ditu Nafarroako Gobernuak azken bi urteetan eta zein izan da ikusketa horien emaitza 50 langile edo gehiago dituzten enpresetan lanpostuen % 2 minusbaliatuentzat gordetzeko betebeharrari dagokionez?

2. Zein eragin du neurri honek Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoetan? Haietako bakoitzean dauden langile minusbaliatuen zerrenda eta enpresa guztietan orotara dauden langileen kopuruak nahi ditugu.

Iruñean, 2000ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--